RAMÓN Y CAJAL DEIALDIA 2026

Deialdiaren informazio orokorra:

2026ko Ramón y Cajal deialdian (aurrerantzean, RyC26) elkarrengandik independenteak diren bi izapide egin behar dira aldi berean:

a. Batetik, ikertzaileak hartuko dituzten **I+G erakundeek eskaerak aurkeztu** behar dituzte, eskaintzen dituzten plazen zerrendarekin batera.

   Prozedura hori **interes adierazpen** baten bidez kudeatzen da, webgunean eskuragarri dagoen *Taldeentzako interes-adierazpena aurkezteko jarraibideak* izeneko dokumentuan azalduta dagoen legez.

b. Bestetik, **hautagaiek** kontratua eskuratzeko **eskaera aurkeztu** behar dute. EHUk ez du prozedura horretan esku hartzen eta interesdunek beraiek bete behar dute aplikazioan eskatzen den informazioa, *Ikertzaile eskatzaileentzako jarraibideak* izeneko dokumentuan azalduta dagoen legez.

Bi prozesu independente izan arren, garrantzitsua da EHUn lanean hasi nahi duten **hautagaiak ikertalde aitortu batekin harremanetan jartzea**, erakundeek deialdian interes adierazpena aurkezterakoan kontuan har ditzaten ikertzaile interesdunak (azaroaren 20an bukatuko da adierazpenak aurkezteko epea).

Giza Baliabideen Arloa
Ikerketa Errektoreordetza